

4. KIROLJOKOAREN TRABESEKO APUSTUEN ARAUTEGIA

Trabeseko apustua Tele Apostuak-ek bitartekari eta parteen artean apustu egindako kopuruen bermatzaile lanak egiten dituen hura da, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak baimendutako eta harekin hitzartutako artesaria kenduta.

Trabeseko apustu bat erabiltzaile apustulari batek "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n gurutzatu gabeko apustu proposamen baten baldintzak onartu eta sistemak berak balioztatzen duenean.

1. Kapitulua: ARTESARIA

KIROLJOKOaren trabeseko apustuetan, irabazten den diru-kopuruari Tele Apostuak-ek %5eko komisio edo artesari bat ezartzen dio, eta hau apustu irabazlea ordaintzerako unean apustulari irabazleari kentzen zaio.

2. Kapitulua: TRABESEKO APUSTU PROPOSAMENEN GAUZATZEA

Erabiltzaile apustulariak "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n apustuak proposatzeko aukera dauka, publikatu aurretik sistemak gauzatu beharko dituenak.

"KIROLJOKOA APUSTU SISTEMA"n apustu proposamen bat gauzatzea "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k proposamen hori egintzat eta onartutzat hartzeko derrigorrezko igarobidea da.

"KIROLJOKOA APUSTU SISTEMA"n apustu proposamen bat gauzatzat jotzeko prozesuaren gutxieneko honako pausu hauek bete behar dira:

- Erabiltzaile apustulariak apusturako proposatzen dituen lehiak, apustua zein momiorekin dagoen gurutzatzeko prest eta jokoan jarri nahi duen zenbatekoa aipatu beharko ditu.
- Erabiltzaile apustulariak apustu proposamenean jokoan jarri nahi duen diru-kopurua ordaindu beharra dauka.
- "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k aurreko eragiketa biak balioztatu behar ditu eta apustu proposamena baimendu.

- "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k Proposamenaren Frogagiria jaulki beharra dauka, eta bertan egindako balioztatzea onartzen da.

Ezinbestean, aipatu aldi horietakoren bat osatu ezin bada, apustu proposamena gauzatu gabetzat joko da.

Erabiltzaile, apustulariak proposamena gauzatu aurretik, sartutako datu eta pronostikoak berak nahi bezalakoak direla egiaztatu behar du, eta "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n apustu proposamenak gauzatzean sartutako datu eta pronostikoen erantzule bakarra bera da.

Erabiltzaileak proposatu nahi duen zenbatekoaren ordainketa esku-dirutan edota Kiroljokoa Txartelarekin egin daiteke. Erabiltzaileak apustu proposamena gauzatu aurretik ordaindu beharreko zenbatekoa "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n begiratu dezake.

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k balioztatzea eta baimentzea, sartutako pronostikoen eta egindako ordainketaren baimentzea eta sisteman bertan eragiketa hauek agertzean datza.

Proposamenak aurrez baimendutako proposamenei buruz egiten badira, baimentzea automatikoa da. Bestela, proposamenak baimenduak izan behar dute. "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k ez badu apustu proposamena baimentzen, sistemak berak baliogabetuko du eta erabiltzailearen eskura utziko du baliogabetutako proposamenaren zenbatekoa, KIROLJOKOAREN Trabeseko Apustuen Arautegian jasotzen den moduan

Erabiltzaile apustulariak Proposamenaren Frogagiria egoki inprimatu dela egiaztatu beharko du.

Tele Apostuak-ek "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n apustu proposamen bat gauzatzat hartuko du, behin sistemak berak baimenduta, egindako Proposamenaren Frogagiria ematen dionean. Gauzatzat apustu proposamena sisteman publikatuta eta gurutzatu zain geratuko da.

Proposamena gauzatu gabetzat hartuko da, ezinbestean, balioztatzea ezinezkoa denean edota, apustu sistemaren erruz, Tele Apostuak-eko Unitate Nagusian ez bada agertzen edota erabiltzaileari Proposamenaren Frogagiria ez badio ematen.

Apustu proposamen bat gauzatzean, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"ko erabiltzaile apustulariak honako hauek onartzen ditu:

- Sistemaren funtzionamendua ezagutzen duela.
- Apustu sistemak jaulki duen apustu Proposamenaren Frogagiriak beregain dituen datuak eta informazioa onartzen dituela.
- KIROLJOKOA apustu Arautegiak ezagutu eta onartzen dituela..
- Apustu egiten ari den kirol lehiako emaitza ez duela ezagutzen.
- Bere apustu proposamena KIROLJOKOA apustu Arautegietan zehaztutako baldintzetara makurtzen dela.

3. Kapitulua: TRABESEKO APUSTU PROPOSAMENETAKO FROGAGIRIA

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k jaulkitako trabeseko apustu Proposamenaren Frogagiria "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k proposamena gauzatu izana erakusten duen dokumentua da, aipatu frogagiria apustu proposamena baimendua dagoenaren froga bakarria delarik, eta, hala nahi izanez gero, gurutzatutako apustuen ordain-agiria eskatzeko, gurutzatu gabeko proposamenen baliogabetzea edota baliogabetutako proposamenen itzulketa eskatzeko dokumentu bakarria.

Frogagiriaren bikoizketa edota kopiarekin gerta daitezkeen iruzurrak ekiditeko, apustu proposamenaren frogagiria gordetzeko ardura jabearena izango da.

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k gauzatutako apustu proposamen baten frogagiriak gutxieneko honako informazio hau eduki behar du berekin:

- Tele Apostuak enpresa ustiatzailearen izena eta zenbakia.
- Proposamena gauzatu den apustu-makinaren edota TPV-aren identifikazioa.
- Zein lehiari buruz egin den proposamena.
- Proposamena gauzatu den urtea, hilabetea, eguna eta ordua.
- Proposatutako diru-kopurua.
- Apustu proposamenaren momioa.

4. Kapitulua: TRABESEKO APUSTU PROPOSAMENEN BALIOGABETZEA

Erabiltzaile apustulariak gurutzatu gabeko diru-kopurua duten gauzatutako apustu proposamen guztiak atzera bota ditzake, beti ere "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"n publikatu eta bi ordura, baliogabetutako apustu proposamentzat epe horretan onartu gabe (gurutzatu gabe) geratu den

apustu proposamenaren zatia hartuko delarik. Atzera botatako zenbateko hori trabeseko apustu proposamen berriak egiteko, apustuak onartzeko edota diru-itzulketa eskatzeko egongo da prest.

Lehia hastearekin bat gurutzatu gabe geratu diren apustu proposamenak baliogabetzat hartuko dira. Proposatutako zenbatekoaren zati bat gurutzatu bada, gurutzatu gabeko zenbatekoari dagokion apustu proposamena baliogabetuta geratuko da.

5. Kapituluua: GURUTZATUTAKO APUSTUEN ORDAIN-AGIRIEN JAULKIPENA

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k proposamen bat onartzen duen erabiltzailearentzako gurutzatutako apustuen ordain-agiria, KIROLJOKOA apustuen Arautegi Orokorra dionez, apustua gauzatzen duen unean jaulkitzen du.

"KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k jaulkitzen du trabeseko apustua proposatu duen erabiltzailearentzako Apustuen Ordain-agiria, Proposamenaren Frogagiria egiaztatu ondoren, apustu proposamen horren egoeraren arabera:

1. Apustu proposameneko zenbateko osoa gurutzatu denean

Apustu proposameneko zenbatekoa bere osotasunean onartzen denean (proposatutako zenbateko guztiari dagozkien trabeseko apustuak egin dira), "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA" apustuak proposatu dituen erabiltzaile apustulariarentzat Apustuen Ordain-agiria jaulkitzeko moduan dago eta haserako apustu proposamena eta gauzatutako (gurutzatutako) apustuak erakutsiko ditu. Ordain-agiri honek, hala izanez gero, apustu irabazleak eta baliogabetutako apustuak kobratzeko balio du.

2. Apustu proposameneko zenbateko osoa gurutzatu ez denean

Apustu proposameneko zenbatekoaren zati bat soilik onartzen bada eta onartu gabeko (gurutzatu gabeko) zenbatekoak ez badira baliogabetu, "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k apustuak proposatu dituen erabiltzaile apustulariarentzat Apustu Ordain-agiria jaulki dezake, behin lehia hasi eta gero. Agiri honek haserako apustu proposamena, gauzatutako (gurutzatutako) apustuak eta gurutzatu gabeko kopurua erakutsiko ditu, eta apustu irabazleak eta baliogabetutako apustuak kobratzeko, hala izatekotan, eta gurutzatu gabeko kopurua itzultzeko balioko du.

Kasu guztietan, behin gurutzatutako apustuen ordain-agiria jaulki ondoren, apustu Proposamenen Frogagiria erabat baliogabetua geratzen da.

6. Kapituluua: BALIOGABETUTAKO APUSTU PROPOSAMENEN ITZULKETA

Baliogabetutako apustu proposamenek baliogabetutako apustu proposamenaren zenbateko osoa jasotzeko edota prest izateko eskubidea izango dute. Eskubide hau gauzatutako Apustu Ordain-agiria edota baliogabetu gabeko apustu Proposamenaren Frogagiria izateak ematen du.

Tele Apostuak-ek gurutzatu gabeko apustu proposamenen zenbatekoen itzulketa behin lehia hasi eta gero prest izango du, eta baliogabetutako apustu proposamenen zenbatekoen itzulketa behin "KIROLJOKOA APUSTU SISTEMA" k apustu proposamenaren baliogabetzea publikatu eta gero.

Erabiltzaileak baliogabetutako proposamen baten gurutzatu gabeko kopurua presti zango du: apustu berriak gauzatzeko emandako kreditu gisa edota apustu proposamen berriak egiteko, edota apustu irabazleetako sariak kobratzeko deskribatu diren modu eta baldintza berdinetan, apustu-makinetan edo apustu-etxeetan kopuru horren itzulketa eskatu dezake.

7. Kapituluua: TRABESEKO APUSTUETAKO MUGAK

Trabeseko apustuetan apustulari eta apustuko gehienezko kopurua ezingo da 600 euro baino gehiagokoa izan. "KIROLJOKOA APUSTU-SISTEMA"k onartutako gutxieneko kopurua apustuaren gurutzatze momioaren arabera da eta apustu sistemak berak ematen du. Erabiltzaile apustulariak apustu egiteko gutxieneko kopurua kopuru hori izango dela espresuki onartzen du.

Trabeseko apustuak soilik apustu egiten den lehiak hasi aurretik gauzatu ahal izango dira.